

Nonacionalistak

• IÑAKI SEGUROLA •

[FILOLOGOA]

Behar lukeen bezala dago titulu-
lua, horrelaxe, hitz bakarre-
an. Nonacionalista hemen,
paraje hauetan, zerbait izatea da, bai-
gauza bat da, Orix bezala mintzatuz,
ez da ez-gauza bat, ez da zerbait ez
izate hutsa. Ni eta nere moduko
batzuk ere ez gara nazionalistak, edo
baxkoak, edo abertzaleak (sinonimo-
ak dira hirurak). Estatuak grazia-
rik egiten ez, eta nolaz egon estatu baten
alde? Eta ez pentsa kontra gaudenik
liberalen edo anarkisten moduan,
Estatuak pertsonaren edo gizabanako-
aren askatasun sakratua zapuzten
duelako, ez, baizik ia alderantzizko
arrazoiengatik, hau da, Estatuaren
lantegi nagusia delako herria edo jen-
de zenbakigabea dagoen tokitik (mito-
itxura du horrek, badakit) gizabanako
edo gizajobanako izuen mordo zenba-
kidun bat sortzea: hautesle, bezero
eta autista mordo bat; eta bizia Kultu-
ra bihurtzea; eta hizkuntza jabetasun
edo erlijio, eta abar gizen bat. Ez dio-
gu egundaino Estatuari geure burua
saldu, osotara bederen, eta ezin diogu
nazionalismoari edo estatu-proiektu-
ari ere saldu: ezin diogu gure arima
saldu, osotara bederen, kultura eus-
kaljatorrari edo folklore txuri-gorri-
berdeari (gauza onen esentzia barren-
goena da esentzia barrengoenik ez
edukitzea, ez dakit nork esan zuen
bezala).

Nik abertzaleen mundua, ez dena
baina pixka-pixkat bederen ulertzen
dut, edo hala iruditzen zait. Oraingo
Aita Estatuarekin ezin bat egin due-
nak, urrunegia, handiegia edo latze-
gia kausitzen duela-
kotz, normala da
amatea beste aita-
txo edo estatutxo
bat ustez amultsua-
goa, bere esentzia
euskaljatorrarekin
bat egiteko modu-
koa izango dena;
aitatxoren etxea
defenditzea han
lasai bizitzeko, eta
batik-bat lasai hil-
tzeko; mapari begi-
ratu eta «hemen
gaude gu» edo «hau
gara gu» esanez
arnasa handi bat
botatzea. Normala
da, beste txorakeria
asko normalak
diren bezalaxe, eta
hori ez du bidaiatze-
ak sendatzen, nona-
cionalistek uste zuten bezala: alde-
rantziz, kanpozaletasunak, nor bere
lurretik mapen mundura jauzi egite-
ak, larritu egiten du gaitz hori, izate-
kotasun ere.

Nik ulertzen ez dudana nonaciona-
listen dotrina da, eta ulertu ezin
horretxek jarri nau artikulutxo hau
idazten. Nik Estatua ontzat jotzen

baldin badut, nola krixto egon ninte-
ke estatu bat sortzearen kontra? Nola
esan liteke nazionalismoa gauza txar-
ra dela eta gaitz askoren sorburua,
haren helburua gauza on bat (estatu
bat) egitea baldin
bada? Nik, konparazio
batera, hazkundean
eta garapenean (psi-
kologikoan eta ekono-
mikoan) sinesten bal-
din badut, eta enpre-
saria banaiz, ezin
egon naiteke enpresa
berriak sortzearen eta
ugaltzearen kontra
inolaz ere, eta enpresa
horiek nerea baino
txikiagoak direlarik,
nekezago. Jende asko
dagoela hemen estatu
txuri-gorri-berde bat
sortzearen kontra? Ez
du balio: estatu guzti-
guztien sorrerako gai-
tza da hori, eta, bere
gaitz eta guzti, Esta-
tua berez gauza ona
bada... (Ez dago ahaz-
terik, bestalde, aber-
tzaleak ere Garaipe-
naren Egunean bertan bihurtuko
liratekeela nonacionalista, hots,
nonacionalisten arabera, izan behar
den bezalako.) Historian atzera egitea
dela? Nonacionalismoak aspaldi
honetan gauza berbera egiten du,
Espainiari «proiektu» deitzen diolarik:
Espainia, aspaldidanik gauza egina

“

*Nik ulertzen ez
dudana
nonacionalisten
dotrina da, eta ulertu
ezin horretxek jarri
nau artikulutxo hau
idazten. Nik Estatua
ontzat jotzen baldin
badut, nola krixto
egon ninteke estatu
bat sortzearen
kontra?*

da. Baina hona ekarri nauen arrazoi-
a egin ditudan galderak dira, eta eran-
tzun eske gelditzen dira. Badakit
egunkari euskaljator hau ez dela
lekurik egokiena nonacionalistei argi-
tasun eske hasteko, baina nere ustea
da suerte pixkatekin izango direla
oraindik bazterretan baxko-damu-
tuak, euskalkume konplexatuak edo

unibertsitateko irakasle objetiboak
(analista politiko do kultur kudeatzai-
letzat hainbeste estimatzen dituzten
horietakoak), gaztetan euskara pix-
kat ikasi zutenak edo zekiten hura

“

*Eta gainera... nola
esango nuke nik?
Nonacionalista
jende hori, ez dakit,
jendaje motz xamarra
ote den edo...
holakoxe erreze-
loak
dabilzkit aspaldian.
Jende motz asko dago
bizi garen munduan
eta hemen bertan
ere bai*

bat ikusten da kanpotik bederen,
axaleko poza beharbada edo barren-
go etsipen baten estalgarria mentu-
raz, baina kolore eta ikuskizun pix-
kat behintzat beren funtzio eta den-
bora-pasetan: bateko ibilaldi eta
besteko korrika; manifa nazional,
mendi-martxa, ikurrinpeko kantu,
bertso eta trikiti saio; gezur polit,
ipuin zahar eta mito berri: alderdi
politik baitira jende sinesberaren-
tzat, erromeriak eta prozesioak
bakandu zaizkigun garaian, eta asko
balio dutenak bizimodua jazteko eta
Mundu Garatuak kondenatatzat ezarri
digan aspermena arintzeko. Gogora
bedi irakurlea oraindik orain izan
diren estadioetako euskal festez: ika-
ragarritzko giza-mordoak erlijio
bihurtutako hizkuntza gaixo bateki-
ko adorazio eta komunio mistikoan!
Ez dago hemen hauetan hoinbeste
lezakeen partidu, sekta, rockero edo
kokakolarik, ez dagoenez! Eta, bien
bitartean, ze bizipoz klase ikusten
dugu nonacionalisten sailean? Ze
entretienigarri, telebistaz, diskotekaz
eta miss lehiaketez kanpora? Ezer
askorik ez. Eta gainera... nola esango
nuke nik? Nonacionalista jende hori,
ez dakit, jendaje motz xamarra ote
den edo... holakoxe erreze-
loak dabilzkit aspaldian. Jende motz asko dago
bizi garen munduan eta hemen ber-
tan ere bai. Jende motza, bai, motz-
jendea. Zertaz ari naizen? Estetikaz,
arrazaz, autoestimaz, sentiberatasu-
naz edo etikaz? Motza... nola? Gorpu-
tzez, belarritz, eder-itsusiz, buruz?
Hemen ixiltzen naiz: irakurleari
uzten diot moztasun edo moztade
horren anbiguotasunak hausteko
lana.

hirusta... 



UNAI ITURRIAGA

Zin dagizuet

Iparraldean izan
gara asteburuan,
Baionan eta
Anhauzen, bertso
lanean. Lanik egiten al
dugun guk inoiz?
Asteburu honetan bai,
zin dagizuet. *Cogito ergo
sum*-ari eutsi behar izan
diot tinko oraingo
honetan, fisikoki
biharamunitisak jota
heldu bainintzen batera
zein bestera. Baionan,
saio erabat parranderoa
egiteaz gain, asko
kantatu genuen Iparraz
eta Hegoaz. Anhauzen ez.
Baina Irulegiko *xuka*
ezagutu ez arren,
komunikazio maila ona
lortu genuela uste dut.
Gustura geratu zen
jendea eta gu pozik itzuli
ginen. Gauza ederra da
hori, zin dagizuet.
Bigarrenez.

Itzuleran, muga-
Guardiazibilak. Kotxean
gindoazen hirurok ere
halakoak ikusi eta
sabelean korapilao egiten
zaigunetakoak ginen.
Aurreko furgoneta
geldiarazi zuten eta guri
paso eman. Pena pittin
bat sentitu genuen
gerarazi zituztenengatik
baina gu poztu egin
ginen, zin dagizuet.
Hirugarrenez. Ondoren
nire ondoko hankaluz-
eak esan zuen zelan esan
zuen su-etenaren kontu
honekin halako
egoeretan amini bat
lasaixeago sentitzen zela.
Ados egon ginen hirurok.
Eta horrelaxe,
berriketan, gogoratu
ginen su-etenik bizi ez
dutenez. Alde bateko ala
besteko poliziak gainera
noiz salto egingo dieten
jendeaz. Ezkutuan,
sasian bizi direnez.
Anhauzen ezagutu
genuen Jagi-Jagiko
gudaria aipatu genuen,
ondarrutarra.

Zertzuk ez ote dizkiete
esan batzuei zein
besteei? Terroristak?
Bada nik maiteago ditut
demokratak baino. Zin
dagizuet.